

PLaza

» 42 ■ Idazleak, Jainkoari buruz

Joxe Arregik 'Jainkoaz galdetza' liburua argitaratu du, 40 euskal idazleren erantzunak jasota.



Peio Serbielle, *Naiz* diskoaren aurkezpenean, Hendaia eta Irunen arteko Santiago zubian. CAIZKA IRUZ

Peio Serbielle, lehen pertsonan

'Naiz' diskoa plazaratu du kantari zuberotarrak, kartzelako egonaldia egin duen obra

XAN AIRE
Hendaia

Haizea dator iparraldetik. Zuberoatik Lapurdira, zeharka. Hendaia-ko karriketan barna. Irunera eta Gipuzkoara doan bidea aurkitu berri du. Santiago zubian sartu da zurrinbilo batean. Baina *España* seinale batek bortizki geldiarazi du. Orduan, ipar haizea kantuz hasi da seinale horren aitzinean. Iparragirre poetaren *Ara nun diran* hitzak kantatu ditu, minaren adierazteko.

Ipar haize labainkatu hori, Peio Serbielle da. Kantari zuberotarrak *Naiz* diskoa aurkeztu zuen atzo Hendaian, Lapurdi eta Gipuzkoaren arteko mugan, edo bi estatuen arteko mugan. Iazko abenduan presondegitik atera zen artista, baldintzapeko askatasunean. Hamasei hilabete iragan zituen kartzelan, ETaren kontrako operazio zabal baten ondotik. ETako zuzendaritzak Domintxaineko bere etxean, Zuberoan bileak egin izana leporatu zioten.

Baldintzapeko askatasun horrek Frantziako Estatutik ateratzea debekatzen dio kantariari. Horren idurikatzeko Hendaia eta Irun arteko Santiago zubian antolatua zuen disko berriaren aurkezpena. «Baldintza hauek inposatu dizkidan Marie-Antoinette Houyvet epaileari ez diot deus gehitu nahi», hasi zen Serbielle. «Nietzsche filosofoak eta poetak zioen bezala, musikarik gabe ez litzateke bizitzeko ahal. Epaileari artista bat naizela erran nahi diot, kantari bat, osoki. Diskoaren aurkezpenak Madrilén, ala Sevillan izan behar zuen. Baina nire herrian, Euskal Herrian, ez naiz nahi dudana bezala ibiltzen ahal». Iparraldean, zerua urdin-urdin dago. Hegoaldean, laino ilunek mehatxatzen dute.

Eta 16 hilabeteko egonaldia eragina dauka *Naiz* diskoan. «Horrelako bizipen batetik ez da dohai nik ateratzen», azpimarratu zuen Serbielle. Baina lehen baino lehen Euskal Herria lehen pertsonan mintzatzeko aukera da Serbiellerentzat. «Antonio Machadok dioen bezala, unibertsa izan nahi baduzu, zure herriaz hitz egin behar duzu. Gure lurraz mintzatzeko gai ez baldin bagara, ezin gara beste-taz mintzatu». *Naiz* diskoa hirukoa lehen oina da, gero *Zara* eta

Gara lanak gauzatzeko helburua baitu dagoeneko Serbiellek.

Nahiz eta obra pertsonala edo intimoa izan, elkarlan franko dauka *Naiz* diskoan. Nadine Rossello abeslari italiarraren ahots beroak kasik kantu guzietan laguntzen du Serbielle. «Haren emazte izateko moldeak gustatzen zait, haren berotasuna. Disko honetan, berotasun eta samurtasun horren beharra neukan», dio Rossellori buruz. Philippe Ezkuraren akordeoi suharra, Xaramela abesbatzaren barrentasuna. «Artista bakoitzari opari bat egiteko eskatu diet. Rossellok Korsikako erlijio kantu bat eskaini dit, *Diu vi salvi Regina*, eta Xaramelak *Aita Gurea*. Nahiz eta ez batere girstinoa izan, preziatu ditut».

Renaud abeslari frantsesak eta ospetsuak ere kantu bateko pasari...

«Epaileari ez diot deus gehitu nahi; artista bat naizela erran nahi diot, kantari bat, osoki»

«Amorrua eta mindura badit, normala den bezala, baina ez dut indarririk herrarentzat»

PEIO SERBIELLE
KANTARIA

te bat kantatzen du *Naiz* diskoan. «Lehen aldia da euskaraz kantatzen duela. Ez gurean sekula lan egin elkarrekin. Baina naturalki egin da, eta ni plazerez aritu naiz harekin», dio irriz Serbiellek. Kantari zuberotarra ezaguna bilakatu zen Frantzian eta Parisen, *show business*-eko artista eta protagonista batzuekin loturak eginak. Kartzelan 16 hilabete pasatu ondoren, Renaud moduko lagun ospetsuak geratzen ote zaizkio? «Michel Delpechek bere sostengua adierazi dit... Bestela... Ez dut herri jende haientzat. Pena da. Nik jende leialak maite ditut. Horrela da. Amorrua eta mindura badit, normala den bezala. Baina ez dut indarririk herrarentzat».

BEROA BEZAIN HOTZA. Baldintza berezietan ekoiztu dute, beraz, Serbielleren disko berri hau. Sony diskoetxeak prestatu dio estudio mugikor bat. Serbielleren etxean grabatuak dira hainbat lan. «Musikariak etxera gonbidatu ditut, eta ganberetan grabatu dugu. Ahots batzuk Baionan ere grabatuak izan dira. Masterizazioa Parisen bukatu genuen, bertako lagunei esker. Renaudek bertan grabatua du kantatzen duen zatia».

Testu gehienak Serbiellek berak idatzi ditu. *Babel* kantua sal-

HK Records labela sortu dute Serbiellek eta lagun batzuek

Universal eta Sony diskoetxeetan lanean arituri, *Naiz* diskoaren plazaratzeko, HK Records labela sortu dute Serbiellek eta haren lagun batzuek. «Diskoetxeak eridirela erran daiteke. Banaketarako, sal-guneetatik urrundu nahi genuen, bannaketa sare hurbil eta ezberdinak aurkitzeko», azaldu du kantari zuberotarrak. Internet erabiltzea erabaki du Serbiellek. Bere webgunean aurki daiteke, beraz, bere lan berria, www.peio-serbielle.com helbidean.

Bestalde, Milan taldeko *Pyrenees Magazine* eta *Pays Basque Magazine* aldizkarietara partaidetza lotu ditu Serbiellek, bai eta www.cotebasque.net eta www.tamazgha.net webguneekin. Durangoko Azokan ere salgai izanen da *Naiz* diskoa, *Gara* egunkariaren eta Gatzuzain argitaletxearen erakustokietan.

bu, euskarazko partea kartzelan ezagutu zuen Andoni Zelaiak idatzi baitu. *Bedatsiaren* kantua Etxahun Iririren testu bat da. Kantu batzuk presondegitik datoz, zuzenean. Orotara, 13 abesti kokatu ditu Serbiellek. Batzuk beroak diren bezain hotzak dira besteak.

Bi zatitan banatzen da *Naiz* diskoa. Lehen parte, arina. Alai dirudi. Melodia bero batzuekin osatua, tango suhar bat egiteko denbora, edo euskal mitologiaren Kiximi kondairan oinarrituz. Mariatxien biolinak, kontrabaxuaren bozak, Argentinako eskusoinu beroak plazerez kiskaltzen ditu lehen kantuak.

Baina *Gernika* 2 kantutik goiti, kaosa. Gero, azken otويت bat, *Aita Gurea*-rekin. Eta *Mezuak*. Serbielleren kartzelako erantzungailuak salatzen dituen amaren negar isilak, adiskideen sostengu hitz beroak, lagun baten piano nota adierazgarriak. Tarteka, kartzelan dagoen kantariaren hasperenak, negar itoak. «Pertsona bat kartzelan sartzen denean, haren familia ere sartzen da barnera».

Eta gero, *Otoitza*. Ez girstinoarenena. Ahots bat. Presoak dutxa hartzen zuenean idatzia, pentsatua. Ez dago hitzik, oihuak baizik. «Grabatzea ikaragarri zaila zen», oroitzen da, «baina diskoan dago, eta poztzen naiz». Gero, *Izarpe* eta *Leloa*, azken bi kantuak. Doinu alaigo bati buruz doazenak. Itxaropenaren argi printza haiek, kartzelako burdinazko barra hotzen artekin pasatzen den argia.

Eta, egun batez, Serbielleren kaiola urdin zuri eta gorriaren atea zizpilduko duen argia. Ipar haizea, Santiago zubia gaiturik, lau haizeetara joan dadin.